

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN ARAUDIA:

- 1) Ume batek eskolaz kanpoko ekintzetan izena emateak, guraso edo tutorearen aldetik araudi hau onartea suposatzen du.
- 2) Ekintza bakoitzak gutxiengo eta gehienezko partehartzaile kopuru bat izango du: 8-15 lagun bitartekoa. Kopuru hau ekintzaren arabera aldatu daiteke. Robotikaren kasuan 5-12 bitartekoa izango da ume kopurua.
- 3) Izena eman dutenen kopurua, eskeinitako plazen kopurua baino handiago bada, guraso elkarte beste talde bat sortzen ahaleginduko da baina ezinean:
 - Izen-emate ordena errespetatuko da, horretarako web bidezko izen emateak hobesten ditugu, data eta ordua agertzen direlako.
- 4) Eskolaz kanpoko ekintzak urriaren 1ean hasiko dira, eta maiatza bukaeran amaitu. Eskolaz kanpoko ekintzak eskolako egutegira moldatuko dira. Robotikak egutegi berezia izango du, baina guraso guztiei ikasturte hasieran bidaliko zaie.
- 5) Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko guraso elkarteko bazkide kuota ordainduta izan beharko da aldez aurretik.
- 6) Ekintza bakoitzaren prezioa urtero ezarriko da, ume kopuruaren arabera, baina gutxi gora behera aurreko urtekoa izango da. Ekintzen ikasturte osoko kuotak banku helbideraketa bidez egingo dira eta 3 aukera ezberdin egongo dira: aldi bakarrean (urrian egingo da ordainketa), bi zatitan (urrian eta otsailean egingo dira ordainketak) eta 3 zatitan (urrian, otsailean eta maiatzean egingo dira ordainketak).
- 7) Epez kanpoko izen emateak: soilik plaza librerik balego onartuko dira eta beti ere ikasturte osoko kuota ordaindu beharko da.
- 8) Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten ume guztiek aseguru berezi bat izaten dute. Polizaren kopia bat nahi izan ezker, eskatu zalduekogurasuk@gmail.com helbidean.